



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**HEMENDIK.
AURRERA.
DE AQUÍ.
EN ADELANTE.**

www.ehu.eus

2020-2021
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia
Acto solemne
de apertura del curso
2020-2021

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



2020-2021
Ikasturteari hasiera
emateko ekitaldia

Acto de apertura
de apertura del curso
2020-2021




Universidad
del País Vasco


Euskal Herriko
Unibertsitatea




Aurkibidea | Índice

1.	2019/2020 ikasturtearen oroitidazkiaren laburpena, Pedro Iriondo Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusi jaunaren eskutik	
	Resumen de la memoria del curso académico 2018-2019, a cargo de Pedro Iriondo, secretario general de la Universidad del País Vasco.....	07
2.	UPV/EHU eta COVID-19a: ikaskizunak eta etorkizunerako erronkak La UPV/EHU ante el COVID-19: lecciones aprendidas y retos de cara al futuro	13
	Inmaculada Arostegui andrea, Matematika Zientzietan doktorea doctora en Ciencias Matemáticas	15
	Gorka Orive jauna, Farmazian doktorea doctor en Farmacia	18
	Juan José Unzilla jauna, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologian doktorea doctor en Tecnologías de la Información y Comunicaciones.....	21
	Mari Luz Esteban andrea, Gizarte Antropologian doktorea doctora en Antropología Social.....	25
	Sara de la Rica andrea, Ekonomian doktorea doctora en Economía.....	28
3.	Osasungintzako profesionalen gorazarre Homenaje al personal sanitario.....	31
	Julia Barroso andrea UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea Profesora de la Facultad de Medicina y Enfermería de la UPV/EHU	33
	Joaquín Durán jauna UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakaslea Profesor de la Facultad de Medicina y Enfermería de la UPV/EHU	35
4.	Nekane Balluerka, UPV/EHUko errektore andrea Rectora de la UPV/EHU	37
5.	Ilñigo Urkullu, Eusko Jauriaritzako lehendakari jauna Lehendakari del Gobierno vasco	51
6.	ANEXO Gorka Orive jauna Farmazian doktorea Doctor en Farmacia.....	59







2019-2020
ikasturtearen oroitidazkairen
laburpena

Resumen de la memoria
del curso académico 2019-2020

Pedro Iriondo Bengoa,
Euskal Herriko Unibertsitateko
idazkari nagusi jaunaren hitzaldia

Discurso de Pedro Iriondo Bengoa,
secretario general de la Universidad del País Vasco







Lehendakari jauna,
Eusko Legebiltzarreko presidentea andrea,
errektore andrea,
herri-agintariak,
agintari akademikoak,
lagunok, egun on guztioi.

Amaitu berri dugun ikasturtearen gertaera nagusiak jasotzea dagokit. Ikasturte oso berezia izan da joan zaigun hau, COVID-19ak eragindako pandemiak erabat baldintzatu baitu Unibertsitatearen jarduna eremu guztietan.

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea inaugura hoy su cuadragésimo primer curso académico, lo que supone el cierre del curso 2019-2020, en el que se han ofertado un total de 71 grados diferentes, 107 másteres, 3 de ellos Erasmus Mundus, y 66 programas de doctorado. Han pasado por nuestras aulas 43.344 estudiantes en enseñanzas oficiales: 35.982 de grado, 3.505 de máster y 3.857 de doctorado. A ellos hay que añadir otros 16.000 estudiantes de títulos propios, cursos complementarios, aulas de la experiencia y cursos de verano (12.500). El balance final suma un resultado de más de 59.500 estudiantes.

Este gran proyecto formativo se lleva adelante con 4.326 integrantes del Personal Docente e Investigador y con 1.129 personas contratadas

como personal investigador o en formación. El Personal de Administración y Servicios asciende a 1.604 personas.

En la actualidad la UPV/EHU consta de tres campus, en los que operan 20 centros; 86 departamentos, tras la reorganización departamental que hemos llevado a cabo; 17 institutos de investigación y 6 cátedras de extensión universitaria.

DOCENCIA

La pandemia causada por el COVID-19 cambió radicalmente nuestra vida cotidiana, así como la actividad de la universidad. Tuvimos que cerrar aulas, laboratorios, bibliotecas, talleres, y empezar a desarrollar la docencia presencial en su modalidad online y a distancia. A partir del 14 de marzo se desplegó la estrategia EHU edonondik que marcó las directrices para mantener activos los procesos de enseñanza-aprendizaje que se vieron afectados por la suspensión de la actividad académica presencial. Este año se ha llevado a cabo la décima convocatoria del programa Docentiaz, en el que han participado 229 profesores y profesoras. Por otra parte, el 53% del personal docente e investigador de la Universidad ya ha sido evaluado.

INVESTIGACIÓN Y DIVULGACIÓN

La investigación constituye otro de los pilares básicos de la universidad pública vasca, pilar que también se ha visto afectado por las circunstancias que estamos viviendo.

En el curso 2019-2020 se han obtenido un total de 200 proyectos de investigación con financiación estatal, autonómica y foral. El Ministerio de Ciencia e Innovación ha concedido 72 nuevos proyectos en las convocatorias de Generación de Conocimiento y Retos de la Sociedad con una financiación global de 8,2 millones. El Gobierno Vasco, por su parte, ha apoyado 59 nuevos proyectos Elkartek. Adicionalmente se ha conseguido financiar 27

proyectos con un importe acumulado de 1,2 millones de euros. A pesar de las difíciles circunstancias, el conjunto de la financiación en nuevos proyectos alcanza la suma de 17,5 millones de euros, similar a la del curso anterior.

En el ámbito de la investigación internacional, se han conseguido 25 nuevos proyectos, incluida una nueva ayuda del European Research Council (ERC), que pone broche final a una participación altamente satisfactoria de la UPV/EHU en el H2020, programa marco de investigación europeo que finaliza este año. En este programa, y a falta de la resolución de las últimas convocatorias, nuestro personal investigador ha estado presente en 111 proyectos, colaborando así con las instituciones y empresas más avanzadas del Espacio Europeo de Investigación y del mundo.

Esto ha posibilitado que la UPV/EHU se convierta en un polo de atracción internacional de talento, como lo demuestra el hecho de que en el curso 2019-2020 se ha incorporado a nuestra institución Albert Fert, premio Nobel de Física.

La intensa actividad desarrollada a través de estos proyectos dio lugar a la publicación en 2019 de 3.804 artículos en revistas internacionales de prestigio, de las cuales el 55,6% se

encuentra en el primer cuartil por índice de impacto.

El esfuerzo docente e investigador permite que la UPV/EHU se encuentre en puestos destacados en los rankings universitarios internacionales más reconocidos. En la edición de 2020 del ranking de Shanghái, la UPV/EHU ha ascendido posiciones y se sitúa entre las 400 mejores universidades del mundo.

La incorporación básica de jóvenes al mundo de la investigación se ha visto impulsada por la defensa de 383 tesis doctorales, de las que el 49% (188) han logrado la mención internacional. Entre las tesis defendidas, 63 lo han sido en euskera.

La universidad ha seguido reforzando sus lazos de colaboración con el tejido socio-económico: se han formalizado 1.250 contratos con 681 entidades por un importe de 11,55 millones de euros, en los que han participado 200 grupos de investigación. También hemos solicitado 82 nuevas patentes y 17 patentes prioritarias, que van renovando nuestra cartera tecnológica. En el ámbito de la transferencia se han firmado 15 licencias para la explotación de tecnologías generadas por la universidad, licenciando a empresas el 38% de los 204 activos protegidos de la cartera tecnológica.



Por otra parte, el Servicio Editorial ha publicado 305 obras monográficas, el 46,72% de ellas en euskera, así como 29 números de distintas revistas de nuestro fondo editorial.

EUSKARA

Euskararen arloan urrats garrantzitsuak eman ditugu unibertsitatearen jarduera eremu guztietan. Irakaskuntzaren arloan bi ekimen nabarmenduko genituzke. Batetik, Medikuntza graduako bigarren zikloko euskarazko kredituen kopurua %12,5 igo izana ospitale unibertsitarioetan eta Galdakao-Usansolo Unibertsitateko Ospitalean 6. maila euskara hutsean jarri izana.

Bestetik, Euskara Institutuaren gidaritzapean euskara hutsean egin ahalko den lehenengo berezko masterra abian jarri izana; hain zuzen, "Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza-praktikak XXI. Mendean".

Bestalde, Euskaltzaindiaren eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenaren karietara Euskal Herriko Unibertsitateko urrezko domina eman diegu bi erakundeei egingdako lan oparoa aitortu eta eskertzeko.

NAZIOARTEKOTZEA

Pandemia izan arren, UPV/EHUren hazkunde eremuetako bat nazioartekotzea izan da. Iazko ikasturtean, atzerriko 3.432 ikasle matrikulatu ziren gure graduako eta graduondoko programetako batean. Halaber, 1.232 ikasle jaso genituen mugikortasun programen esparruan, eta gure unibertsitateko 1.722 ikasle bidali genituen atzerriko unibertsitateetara. Bestalde, 32 irakaslek eta administrazio eta zerbitzuetako langilek egonaldiak egin dituzte mugikortasun programen esparruan, pandemiak eragin handia izan du datu hauetan.

Eleaniztasunaren arloan, irakasgaien eskaintza handitu dugu hirugarren hizkuntzetan. Joan den ikasturtean, hizkuntza ez-ofizialetako graduako 841 irakasgai eta masterreko 367 eskaini dira guztira. Gainera, irakasle eta ikertzaileen 1.330 kidek egiaztatuta dute hizkuntza ez-ofiziale-tan irakasteko gaitasuna.

ERAKUNDE AKREDITAZIOA

Kudeaketaren kalitateak aurrerapen nabarmena izan du erakunde akreditazioaren prozesuari dagokionez. Gure unibertsitatea liderra da alderdi horretan estatu mailan: osatzen duten 20 zentroetatik hamaikak erakunde akreditazioa lortu dute, eta aurreikuspenen arabera, 2022rako UPV/EHUko zentro guztiak akreditatuta egongo dira.

COMPROMISO SOCIAL

Gure unibertsitatea publikoa den heinean, konpromiso sendoa dauka euskal gizartearekin. Horrela, oztopoak oztopo, ikasleak goi-mailako hezkuntzara hurbiltzeko eta unibertsitateak euren formazioan eskaini ahal dituen aukerez jabetzeko, orientazio lana trinkotu dugu amaitu berri den ikasturtean.

Bigarren Hezkuntzako ikasleen eta haien familien artean ezagutarazteko, unibertsitateara sartzeko programaren barruan hainbat jarduera burutu dira (aurten ere Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan). Guztira, 19.500 pertsona inguruk parte hartu dute unibertsitate orientazio azoketan, ikastegietako ateak zabaltzeko egune-tan edota jarduera praktikoetan.

Zientzia Asteak, gure Unibertsitateak antolatzen duen zientzia-dibulgazioko ekitaldirik garrantzitsuenak, 20.000 pertsona bildu zituen hemeretzigarren edizioan, eta horiei gehitu behar zaizkie aurreko egune-



tan «Ilusioa eta Zientzia UPV/EHU» jardueran parte hartu zuten 6.000 pertsonak.

UPV/EHU erabat konprometituta dago inklusioarekin, aniztasunaren errespetuarekin eta berdintasunarekin. Inklusioari dagokionez, ezgaitasunak dituzten ikasleen errola 425 pertsonakoa izan da eta unibertsitatera sartzeko probak egiteko 401 egokitzapen eskaerari erantzun zaie.

Hiru lurraldeetako Foru Aldundiekin batera Arrakasta programak fruituak ematen jarraitu du. Izan ere, haur eta nerabeen babeserako eta gizarte inklusiorako sistemen barruan dauden gazteek aukera izan dezaten unibertsitatean sartzeko eta goi mailako ikasketak arrakastaz burutzeko programa honetan 19 ikaslek parte hartu dute.

Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen inklusiorako ahaleginari, errefuxiatuekin eginikoa gehitu zaio. Administrazio tramiteetan lagundu diegu nazioarteko babes egoeran dauden 15 pertsonari unibertsitate ikasketak hasi edo jarrai ditzaten.

Enplegarritasuna sustatzeko eta ikasleak esperientzia zuzen eta errealean birtatez lanaren munduan murgiltzen

joan daitezzen, praktikaldien garrantzia azpimarratzen dugu. Bukatu berri dugun ikasturtean 10.929 praktika burutu dituzte gure ikasleek 4.057 enpresa eta erakundetan.

Lan eremuarekin duten lehen harreman honek segida izan du hiru campusetan antolatu diren Enplegu Foroetan, zeinetan enpresak eta erakundeak batetik eta ikasleak bestetik harremanetan jartzeko aukera ugari sortzen diren. Azken ikasturtean 138 enpresa eta erakunde bertaratu dira, eta 372 lanpostu eskaini dituzte. Gure ikasleen eta ikasle ohien 700 curriculum vitae inguru aurkeztu zaizkie enplegatzaileei.

Amaitzeko, ezinbestean laburra izan behar duen txosten honen bitartez, espero dut unibertsitateak 2019-2020 ikasturtean izandako jardunaren alderdi nagusiak transmititu izana, baita gure Unibertsitateko kide garen guztiok Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien, udalen, Eusko Legebiltzarraren eta gizarte nahiz ekonomia erakundeen laguntzaz egiten eta garatzen ditugun proiektu eta ekimen kopuru handia ikusarazi izana ere. Erakunde horiek emandako babesa aitortu eta zinez eskertu nahi dugu.

Besterik ez, eskerrik asko zuen arretagatik.

UPV/EHU eta COVID-19a: ikaskizunak eta etorkizunerako erronkak

Inmaculada Arostegui andrea,
Matematika Zientzietan doktorea

Gorka Orive jauna,
Farmazian doktorea

Juan José Unzilla jauna,
Informazioaren eta Komunikazioen Teknologian doktorea

Mari Luz Esteban andrea,
Gizarte Antropologian doktorea

Sara de la Rica andrea,
Ekonomian doktorea

La UPV/EHU ante el COVID-19: lecciones aprendidas y retos de cara al futuro

Inmaculada Arostegui,
doctora en Ciencias Matemáticas

Gorka Orive,
doctor en Farmacia

Juan José Unzilla,
doctor en Tecnologías de la Información y Comunicaciones

Mari Luz Esteban,
doctora en Antropología Social

Sara de la Rica,
doctora en Economía







Inmaculada Arostegui andrea

Matematika Zientzietan doktorea

Doctora en Ciencias Matemáticas

Agintariok, lagunok, egunon guztioi.

“Epidemiologia” hitza termino zientifikoa izatetik eguneroko hizkuntzan txertatuta egotera igaro da aurten. Horregatik, Florence Nightingale gogoratuz hasiko dut nire interbentzioa. Formazioz erizaina, afizioz matematikaria, hain ezberdinak diren bi arlo horiek ezin hobeto uztartu zituen emakume honek.

Crimeako Gerran jabetu zen Nightingale hilkortasunaren zati handi bat ez zela gerrako zaurien ondorioa, garbitasun eta osasun baldintzen ondorioa baizik. Gerrako ikaskizunak hausnarketarako erabili zituen berak, harrezkero Osasun Publikoko neurriak ezartzeko balio izan zuten ebidentziak erakutsiz. Nightingalei erreferentzia eginez hasi dut hitzaldia, alde batetik aurten bere 200. urteurrena delako, eta bestetik, bere bizipenek bi gogoeta dakarzkidalako burura.

Lehena datuen inportantzia da. Datuak erabili zituen Nightingalek, gaur egun Osasun Publikoan funtsezkotzat hartzen ditugun aspektuen garrantzia agintari britainiarrei erakusteko. Mende t’erdi pasa den arren, uste dut asko daukagula ikasteko, bereziki gaur egun.

Este año, en el que la palabra “Epidemiología” ha pasado de ser un término científico a engrosar el vocabulario de la calle, quisiera comenzar mi intervención hablando de Florence Nightingale. De formación enfermera, de afición matemática, ella supo combinar a la perfección estas dos áreas dedicándose a la Epidemiología.

Nightingale ejerció de enfermera en la guerra de Crimea, donde se dio cuenta de que gran parte de la mortalidad no era debida a heridas de guerra, sino a la falta de higiene y condiciones de salud. Las lecciones que aprendió en el frente le sirvieron para reflexionar, recopilar datos y mostrar evidencias que contribuyeron a establecer medidas de Salud Pública durante los años posteriores. He querido empezar mi intervención hoy recordándola, primero porque es el 200 aniversario de su nacimiento, y segundo, para presentar dos reflexiones que me gustaría compartir con esta audiencia.

La primera idea es la importancia de los datos. Nightingale convenció a los líderes políticos británicos sobre aspectos que hoy en día se consideran claves en Salud Pública, con datos. Y opino que todavía siglo y medio después, y especialmente ahora, tenemos mucho que aprender.

Azken hilabete hauetan gauza asko esan dira datuei buruz komunikabideetan. "XIX. mendeko datuak XXI. mendeko pandemiarako" eta antzerako adierazpenak egin dira, dauzkagun osasun-datuen informazio eta kudeaketa sistemak zaharkituak eta zurrinak direla esan nahian. Kritika horiek gogoetarako baliatzea gustatuko litzaidake. Gogoeta pandemian bizi izandako egoeran ikasitakoari buruz eta egun, etorkizun hurbilean, planteatzen zaigun erronkari buruz.

Datu-analisan aditua eta aldi berean sukaldari afizionatua naizenez, datuak sukaldeko osagaiekin alderatuko ditut. Janaria prest eta aparteko zapoarekin egotea, osagaien eskuragarritasunaren eta kalitatearen araberakoa izango da, besteak beste.

Pandemia honek zerbait irakatsi digu zentzu horretan. Datuak bildu eta prozesatu orain arte ere egin dira. Baina oraingoan, datu gutxi genituen, ez zegoen aurre-estatistikarik, eta gainera ez genituen behar bezalako premiarekin prozesatzen. Hozkailua beterik zegoen, baina janaria ez zen nahi bezain azkar eta kalitatez iristen mahaira. Datuen bilketa eta kudeaketa eraginkorra behar dugula ikasi dugu, azkartasunean eta kalitatean, baina etika ahaztu gabe. Eta etika aipatzen dut, zeren seguruenik hainbat kasutan konfidentzialtasuna bermatzeak prozesua moteldu egin zuen. Baina alde horretatik, konplexua izan arren, oreka lortzea beharrezkoa ezik, ezinbestekoa da. Eta hauxe da aurrez aurre daukagun erronka: datuak bildu, metatu, prozesatu eta aztertu egitea, konfidentzialtasuna bermatuz, baina emaitza interpretagarriak azkar lortuz.

Eta erronka hori, Nightingalen esperientziaz ateratzen dudana bigarren gogoe-tarekin lotuko dut, disziplinartekotasuna eta elkarlanaren garrantzia hain zuzen, ez

Durante estos últimos meses se ha hablado mucho de los datos en los medios de comunicación. Se han usado expresiones como "datos del siglo XIX para una pandemia del siglo XXI", poniendo de manifiesto que los sistemas de información y gestión de datos sanitarios que tenemos son obsoletos y rígidos. Quisiera aprovechar esas críticas para lanzar una reflexión sobre la lección aprendida de la situación vivida durante la pandemia y el reto que se nos plantea en un futuro, quizás más próximo que lejano, en este contexto.

Como experta en análisis de datos y aficionada a la cocina, permítanme que compare los datos con los ingredientes en la cocina. Que el plato final esté listo en la mesa y tenga un sabor exquisito, dependerá, obviamente entre otras cosas, de la disponibilidad y la calidad de los ingredientes.

Esta pandemia nos ha enseñado mucho en este sentido. Los datos se recogen y se procesan, desde hace muchos años. Pero en esta ocasión, los datos que teníamos eran pocos, no teníamos estadísticas previas, y además no los procesábamos con la suficiente eficacia. La nevera estaba llena, pero la comida no llegaba a la mesa con la rapidez y la calidad deseada. La lección aprendida es que necesitamos una recogida y gestión de datos eficaz en rapidez y calidad, pero sin perder de vista la ética. Sí, la ética, porque en algunos casos garantizar la confidencialidad quizás ralentizó el proceso aún más, la búsqueda del equilibrio en ese sentido es compleja pero necesaria. Y este es el reto que se nos plantea: organizarnos en la recogida, almacenamiento, procesado y análisis de datos, con garantías de confidencialidad, e incluyendo la obtención rápida de resultados interpretables para la toma de decisiones.

Y este reto me permite enlazar con la segunda de las ideas que quisiera extraer de la experiencia de Nightingale, la importancia de la interdisciplinariedad y el trabajo colaborativo,



bakarrik alarmak jotzen duenean, uneoro baizik. Zientziari dagokionez, denok hausnartu dugu inoiz disziplina arteko edo disziplina anitzeko kontzeptuen garrantziaz. Pandemiaren kudeaketak erakutsi digu, modu bortitzean gainera, kolektibo eta arlo zientifikoaren arteko lankidetzak behar-beharrezkoa dela. Sukaldaritzara bueltatuz, jeneroa erosi eta janaria platerrean jarri arteko prozesua ez da sukaldariaren meritua bakarrik, baita xehetasunak zaintzen dituen talde osoarena ere. Era berean, osasun-inguruneak beste profesional batzuen partehartzea eta laguntza behar du pandemiaren kudeaketarako.

Maila pertsonalean lortutakoarekin oso harro nagoela aitortu beharra dut. Arlo ezberdinetako hainbat pertsona bildu gara, erlojuaren kontra COVID-19aren ondorioz Euskadin izandako ospitaleratze-kopurua eta hilkortasuna aurrerako lan egiten dugunok. Hau bezala, beste lantalde asko sortu dira, sistemak behar zuen laguntza hori eskaini nahian. Euskal Herriko Unibertsitateak horietako askotan parte hartzen du. Aurrean dugun erronka lantalde horiek eta ahalegin horren emaitza bizirik mantentzea da, eta horri esker diziplinartekotasuna errutina bihurtzea. Ziur nago Euskal Herriko Unibertsitateak, bere leloari leial izanik, desafio hori onartuko duela.

Orain Gorkak osasun arlora bete-betean eramango gaitu, zurea da hitza.

no solo cuando salta la alarma, sino como rutina. Todos y todas hemos reflexionado en alguna ocasión sobre la relevancia de la inter- o multi- o trans-disciplinariedad científica. La gestión de la pandemia nos ha mostrado, de una forma incluso brutal, que la colaboración entre colectivos y disciplinas científicas es más que relevante, es absolutamente necesaria. Volviendo al símil de la cocina, desde elegir y comprar el género, hasta el emplatado final, no solo depende de la destreza del cocinero, sino de todo un equipo que cuida los detalles. Del mismo modo, el entorno sanitario requiere de la participación y apoyo de otros profesionales en la gestión de la pandemia.

A nivel personal, debo decir que me enorgullezco del trabajo realizado por un grupo de personas pertenecientes a disciplinas diversas y formado en un tiempo record, para ofrecer predicciones sobre el número de ingresos hospitalarios y mortalidad por COVID-19 en Euskadi. Al igual que éste, se han creado otros muchos grupos de trabajo tratando de ofrecer este apoyo que el sistema requería, y la UPV/EHU está presente en muchos de ellos. El reto que tenemos por delante es mantener vivos esos grupos de trabajo y el resultado de ese esfuerzo, hacer de la inter-disciplinariedad rutina. Estoy segura de que la UPV/EHU, siendo fiel a su lema, aceptará el desafío que supone.

Ahora Gorka nos introducirá de lleno en el entorno sanitario, Gorka la palabra es tuya.



Gorka Orive jauna,

Farmazian doktorea

Doctor en Farmacia

Hamar hilabete inguru pasatu dira koronabirusaren lehen kasu ezaguna Txinan agertu zenetik, eta zazpi baino gutxiago, birusaren mehatxuak bizitza normala gainditu zuenetik eta "errealitate berria", "asintomatikoa", "agerraldia" eta "distantzia soziala" bezalako hitzak eta esaldiak gure hiztegi kolektiboan sartu zirenetik. Langabeziaren estatistika gero eta handiagoetatik hasita medikamenduen saiakuntza itxaropentsuetara, pandemiari buruzko informazio berria sortzen da une oro, eta horrek erronka izugarri handia ekarri du, gehiegikeriaren eta itxaropenaren arteko bereizketa egiteko.

SARSCoV2ren koronabirusa gizakiak kutsatzen dituzten zazpi birusetako bat da. Urtaroko gripea baino kutsakorragoa, birus berria isilagoa da, eta ostalari batetik bestera zabaltzen da hainbat egunez, PCR bidez hauteman aurretik. Aurreko hilabete hauetan, birusa, haren transmisioa eta hark sortzen duen gaixotasuna hobeto ulertzeko aukera izan dugu. Mundu osoko osasun sistemek aurre egin behar izan zioten komunitate batetik bestera jarraipenik egin gabe zabaltzen utzi zitzaion birus bati, eta horren ondorioz, ospitaleek gainezka egin zuten, haien edukiera ahalmenaren mugaraino edo are urrunago iritsita.

Han pasado unos 10 meses desde que apareció el primer caso conocido de coronavirus en China, y menos de 7 desde que la amenaza del virus superó la vida normal y frases como «nueva realidad», «asintomático», «brote» y «distanciamiento social» se alojaron en nuestro vocabulario colectivo. Desde las crecientes estadísticas de desempleo hasta los prometedores ensayos de medicamentos, constantemente surge nueva información sobre esta pandemia, lo que supone un enorme desafío para discernir entre la exageración y la esperanza.

El coronavirus del SARSCoV2 es uno de los siete que se sabe que infectan a los humanos. Más transmisible que la gripe estacional, el nuevo virus es también más sigiloso, propagándose de un huésped a otro durante varios días antes de que sea posible la detección basada en la PCR. Estos meses anteriores nos han permitido comprender mejor el virus, su transmisión y la naturaleza de la enfermedad que produce. Los sistemas de atención de la salud de todo el mundo se enfrentaron repentinamente a un virus que se había dejado propagar, sin seguimiento, a través de las comunidades y, como consecuencia, los hospitales se vieron desbordados y saturados, llegando a estar cerca o más allá de su plena capacidad.

Ikuspuntu zientifiko batetik, birusak, ACE2 hartzailea erabilita, zelula mota askotara sartzea lortzen duela frogatu da. Bitxia bada ere, usaimen edo dastamenaren galera sintoma komun bat da, infekzioaren alerta goiztiarrerako seinale bat izan daitekeena. Adinak, sexuak, hormonek eta geneek oinarritzko paper bat bete dezakete infekzio arriskua eta biriketako lesio larrien garapena zehazteari begira. Pertsona asintomatikoek birusaren zabal-kundearen betetzen duten paperak kezka handia sortzen du oraindik. Azkenaldian, berrinfekzioak pandemia puzzle honen pieza kezkagarri berri bat izateko aukerak astindu gaitu.

Guztiok dakizunez, oraingo birusak biri-kei eragiten die, eta sukarra eman dezake. Pertsona batzuei odolbildu larriak egiten zaizkie, eta gaixotasunak organo eta ehun askotan izan ditzakeen albo ondorioen berri eman da. Gaixotasunarekin izan dugu esperientzia laburrak eta trinkoak erakutsi digu inor ez dela immunea birusaren eta pandemiaren aurrean, haurrengatik hasita adinekoengana; azken horiek, lehendik bestelako osasun arazoak dituztenak bereziki, gaixotasunaren arazo larrienak jasaten ari dira.

Une erabat historikoa bizitzen ari gara. Sufrimenduak eta ziurgabetasunak gure eguneroko existentzia moldeatu dute. Alabaina, egokitzeko garaia ere izan da, gure beldurrei modu aktiboan aurre egiteko eta gizarte eta unibertitate gisa gure onena emateko garaia. Osasun publikoaren egoera honen alderdi guztien jarrai-

Desde una perspectiva científica, se ha demostrado que el virus consigue entrar en muchos tipos de células utilizando el receptor ACE2. Curiosamente, la pérdida del olfato o del gusto es un síntoma común que podría ser una señal de alerta temprana de la infección. La edad, el sexo, las hormonas y los genes pueden desempeñar un papel fundamental en la determinación del riesgo de infección y el desarrollo de lesiones pulmonares graves. El papel de los individuos asintomáticos en la propagación del virus sigue siendo una gran preocupación. Últimamente, nos ha conmovido el hecho de que las reinfecciones puedan convertirse en una nueva pieza preocupante de este rompecabezas pandémico.

Como todos sabemos, el virus actual afecta a los pulmones y puede causar fiebre. Algunas personas desarrollan graves coágulos de sangre y se han notificado posibles efectos secundarios de la enfermedad en una amplia gama de tejidos y órganos. Nuestra corta e intensa experiencia con la enfermedad nos ha demostrado que nadie es inmune al virus y a la pandemia, desde los niños hasta los ancianos; estos últimos, especialmente los que tienen problemas de salud subyacentes, son los que más frecuentemente sufren los mayores problemas de la enfermedad.

Definitivamente estamos viviendo un momento histórico. El sufrimiento y la incertidumbre han dado forma a nuestra existencia cotidiana. Pero también ha sido un tiempo de adaptación, de enfrentar activamente nuestros miedos y de dar lo mejor de nosotros mismos como sociedad y como universidad. Un tiempo para ayudar a otros a hacer un segui-



pena egiten besteei laguntzeko garaia da, egoera azkar ari baita eboluzionatzen, eta hura kontrolatzeko ezagutza eta konponbide berriak emateko garaia ere bada.

Birusak birusa izaten jarraitzen du. Baina hari aurre egiteko gure gaitasuna hobetu da. Gaur egun, medikamendu zahar eta berri batzuk ebaluatzen ari dira, eta horietako batzuek gaixotasunari aurre egiteko lehen eraginkortasun zeinuak eman dituzte. Denok sinisten dugu, ostera, azken albisteak gorabehera, txertoek mugarri bat ezar dezaketela pandemia honetan. 300 baino gehiago ikertzen ari dira; 160 ebaluazio aurreklinikoan daude; 30 gutxienez saiakuntza klinikoen fasean daude; eta, 9, III. fasean. **Ostera, ez dago lasterbiderik txertoen edo medikamenduen ebaluazio klinikorako. Ez dago lasterbiderik.** Ezin dugu biztanleentzako balizko arriskurik hartu, eta ezin dugu txertoen izena lohitu, arduragabekeriaz edo epe laburreko taktikak direla eta.

Zentzu askotan, pandemia honek gizarte gisa zer dugun eta zer garen baloratzen lagundu digu, benetan garrantzitsua dena lehenesten, eta gobernatzen gaituztenen erabakien larritasuna ulertzen. Gure unibertsitateak helburu horiek bereganatu ditu, informazio zientifikoaren dibulgazioan lagunduta eta proiektu asko sustatuta. Zuetako batzuek inozotzat hartuko nauzue agian, baina uste dut osasunari, hezkuntzari, zientziari eta berrikuntzari lehenetasun handiagoa ematen dien gizarte izateko ordua iritsi zaigula. Zentzu askotan, gizarte gisa aurrez aurre ditugun erroka horiek eta gure unibertsitateak benetakotzat dituen balioak elkarren isla dira.

Eta orain Juan Josék koronabirus kasuen jarraipena egitea ahalbidetzen dituzten teknologia aurkeztuko dizkigu.

miento de todos los aspectos de esta situación de salud pública que evoluciona rápidamente e incluso para proporcionar nuevos conocimientos y soluciones para controlarla.

El virus sigue siendo el virus. Pero nuestra capacidad para enfrentarlo ha mejorado. Actualmente se están evaluando varios medicamentos antiguos y relativamente nuevos, y algunos de ellos están mostrando los primeros signos de eficacia contra la enfermedad. Sin embargo, todos creemos, a pesar de las noticias recientes, que las vacunas pueden representar uno de los puntos de inflexión de esta pandemia. Hay más de 300 en investigación, 160 en evaluación preclínica, al menos 30 de ellas en ensayos clínicos y 9 en fase III. **Sin embargo, no hay atajos para la evaluación clínica de vacunas o medicamentos. No hay atajos.** No podemos asumir ningún riesgo potencial para la población ni desacreditar las vacunas por irresponsabilidad o por tácticas a corto plazo.

En muchos sentidos, esta pandemia también nos ha ayudado a valorar lo que tenemos y lo que somos como sociedad, a priorizar lo que es y lo que no es importante, y a comprender la gravedad de las decisiones de quienes nos gobiernan. Nuestra universidad pública ha adoptado estos objetivos, ayudando a la divulgación de información científica compleja y promoviendo muchos proyectos. Tal vez algunos de ustedes me consideren ingenuo, pero creo que ha llegado la hora de convertirnos, sin dudarlo, en una sociedad que prioriza mucho más la salud, la educación, la ciencia y la innovación. En muchos sentidos, estos retos a los que nos enfrentamos como sociedad, y los valores que nuestra universidad pública sostiene como verdaderos, se reflejan mutuamente.

Y ahora Juan José nos presentará las tecnologías que permiten el seguimiento de los posibles casos de coronavirus



Juan José Unzilla jauna,
*Informazioaren eta Komunikazioen
Teknologian doktorea
Doctor en Tecnologías de la Información
y Comunicaciones*

Gorkak etorkizun itxaropentsu bat aurkeztu digu, txerto eraginkor bat edo batzuk lortzeari begira, baina bistan da birusak gugan interesa duela oraindik. Txertoak iristen eta tratamenduak hobetzen diren bitartean, helburu nagusia kutsatzeen kopurua minimizatzea da oraindik.

Eta horretarako lehenbailehen identifikatu behar ditugu infektatuta dauden pertsonak, eta ahal bezainbesteko zehaztasunez aurkitu behar ditugu haiekin harremanetan egondako pertsonak. Teknologiak oso laguntza baliotsua ematen digu zeregin horretarako.

Lehen arreta zerbitzuek egindako trazaketa laguntza handikoa izaten ari da, baina mugak ditu. Kutsatutako pertsonak ezin dute beti beharrezkoa den zehaztasunez adierazi zenbat pertsonarekin egon diren eta zer egoeratan pasatu dituzten 15 minutu baino gehiago 1,5 metrotik beherrako tarte batean.

Egoera batzuetan ez ditugu pertsona guztiak ezagutzen, hala nola garraio publikoan, jatetxe batean edo denda batean. Eta pertsona ezagunak izanda ere, beti ez dugu zehatz-mehatz gogoratzen zenbat denbora pasatu dugun elkarrekin eta zer distantziatara egon garen.

Gorka nos ha presentado un horizonte esperanzador en la obtención de una o varias vacunas eficaces, pero es evidente que al virus no hemos dejado de interesarle. Mientras llegan las vacunas y los tratamientos mejoran, el objetivo prioritario sigue siendo minimizar el número de contagios.

Y para ello es necesario identificar cuanto antes a las personas que han sido infectadas y localizar, con la mayor rapidez y precisión, a quienes han estado en contacto cercano con éstas. La tecnología nos proporciona una ayuda muy valiosa para realizar esta tarea.

El trazado realizado por los servicios de atención primaria está siendo de gran ayuda, pero tiene limitaciones. Las personas infectadas no siempre pueden precisar con la certeza necesaria, con cuántas personas y en qué situaciones han estado durante 15 minutos a una distancia inferior al metro y medio.

Hay situaciones en las que no conocemos a todas las personas, como en el transporte público, en un restaurante o en una tienda. Y aun siendo personas conocidas, no siempre recordamos con exactitud el tiempo que hemos pasado juntos y la distancia a la que hemos estado.

Aztertu beharreko lehen galdera da ea benetan beharrezkoa den mugikorretan aplikazioak erabiltzea lan hori egiteko. Hala bada, bigarren galdera izango da zer eredu aukeratzen den informazioa jasotzeko eta biltzeko. Hau da, noiz, nola eta nork jakingo du positiboa eman duten pertsonen identitatea eta nola eskuratzen den kutsatuta egon daitezkeen kontaktuen identitatea.

Nire iritziz, lehen galderaren erantzuna "bai" da; alegia, mugikorretarako aplikazioak erabili behar ditugu miaketa egiteko, baina ez edozein modutan. Eta bigarren galderaren erantzuna, berriz, honako hau da: eredu deszentralizatuak erabili behar dira, non pertsonak beren erantzukizuna bete behar duten eta kutsakorrak izan diren aldian igorri dituzten eta beren mugikorretan erregistratuta geratu diren kodeak jakinarazi behar dizkioten sistemari. Kode horiek ez dute pertsona identifikatzen, ezta zer lekutatik bidali ziren eta zer pertsonari bidali zitzaizkien ere.

Giza garapen orok bezala, mugikorretako arakatze aplikazioek ere beren mugak dituzte. Pribatutasun bermeei buruzko zalantzak saihestezinak dira. Zalantza horiek argitzeko, ezinbestekoa da aplikazio horiek bi premisaren arabera diseinatuta egotea. Lehenengoa da diseinu bidezko pribatutasun eta segurtasun ereduaren erabilera funtsezko eta ezinbesteko baldintza bat izatea. Bigarregoa, berriz, kode irekiko ereduaren araberako protokoloak eta aplikazioak garatzea.

Lehen premisari dagokionez, baztertu egin da GPS seinaleak edo mugikorren sarearen seinaleztapena erabiltzea; izan ere, gailuaren kokalekua zehaztasunez ematen dute, eta pertsonak zer ohitura dituzten, nora joan ohi diren edo zeinekin dauden jakiteko erabil daitezke. Eta hautatu da identifikatzaile pseudoaleatorio efime-

Una primera cuestión a considerar es si realmente es necesario utilizar aplicaciones en teléfonos móviles para hacer esta tarea. En caso afirmativo, la segunda cuestión es qué modelo de recogida y almacenamiento de información se elige. Es decir, cuándo, cómo y quién conoce la identidad de las personas que han dado positivo y cómo se accede a la identidad de los contactos que puedan estar potencialmente contagiados.

En mi opinión, la respuesta a la primera cuestión es que sí, que necesitamos el uso de aplicaciones en teléfonos móviles para el rastreo, pero no de cualquier manera. Y la respuesta a la segunda es que se deben utilizar modelos descentralizados, en los que las personas puedan y deban ejercer su responsabilidad notificando al sistema los códigos que ha enviado durante el periodo en que han sido contagiosas y que han registrado en sus móviles. Estos códigos no permiten identificar a la persona, ni el lugar donde se enviaron ni a las personas a las que se les envió.

Como cualquier desarrollo humano las aplicaciones de rastreo en teléfonos móviles presentan limitaciones. Las dudas sobre las garantías de privacidad son inevitables. Para despejarlas, es imprescindible que estas aplicaciones estén diseñadas siguiendo dos premisas. La primera es que se utilice el modelo de privacidad y seguridad por diseño, que sea un requisito esencial e ineludible. La segunda es que se desarrollen los protocolos y aplicaciones siguiendo el modelo de código abierto.

Respecto a la primera premisa, se ha descartado usar señales de GPS o la señalización de la red móvil, ya que permiten posicionar el dispositivo de forma precisa y pueden ser utilizadas para rastrear hábitos, zonas que se frecuentan o personas con las que se está. Y se ha elegido usar identificadores pseudoaleatorios efímeros que no salen del mó-



roak erabiltzea, mugikorretik ateratzen ez direnak, non eta pertsonak berak ez dituen bidaltzen infektatu gisa diagnostikatua izan ondoren.

Bigarrenari dagokionez, protokoloak jendaurrean eskura daude, komunitate zientifikoak eta teknikoak aztertu eta egiaztatzen dituzten.

Era oso sinplifikatu batean, kontaktuen trazaketarako aplikazioak identifikatzaile pseudo-aleatorio efimeroak bidaltzen dituzte etengabe bluetooth bidez. Identifikatzaile horiek maiztasun batez aldatzen dira, eta pertsonaren mugikorra ordezkatzen dute. Era berean, metro eta erdiko perimetroaren barruan dauden mugikorretatik jasotzen dituen identifikatzaile efimeroak erregistratzen dituzte aplikazioak.

